

**2019ko UZTAILAREN 2an UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA** **11 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko uztailaren 16an, arratsaldeko ordu bat eta erdietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Miren Letamendia Beloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn.
<b>Ez da etorri</b>	Ana De Benito Sanz and.
<b>Jarduneko idazkaria</b>	Nagore Artamendi Garmendia and.
<b>Kontu-hartzailea</b>	Karmele Lizaso Ubera and.

Lehenik eta behin, **alkate** jaunak adierazi du bilkuraren izaera apartekoa dela. Horren arrazoia da, hain zuzen ere, bete egin behar dela Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduak 38. artikuluan xedatutakoa (2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa).

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

## GAI-ZERRENDA

### 1.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

2019III0006 espedientea

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hitzez hitz ondoren jasotzen diren dekretuen berri eman du jarduneko idazkari andreak:

#### a) Izenpea eskuordetzea

Alkatetzaren 0753 Dekretua, 2019ko ekainaren 18koa:

“Ikusi denez, komeni da Alkatetza honek ERRENTETAKO TEKNIKARIARI –eta, hura ez dagoenean, kontu-hartzaileari– eskuordetzan ematea udal zergen likidazioen izenpea; izan ere, horrek hein handi batean administrazio-jardunbidea arinduko luke eta administrazioa are eraginkorragoa lortzen lagunduko luke.

Kontuan hartuta, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 12. artikuluan aurreikusten duela aipatutako eskuordetza hori,

#### ERABAKITZEN DUT

**Lehena.**- ERRENTETAKO TEKNIKARIARI –eta, hura ez dagoenean, kontu-hartzaileari– eskuordetzea udal zergen likidazioen izenpea, legezko testu berak 13. artikuluan ezarritako mugekin.

**Bigarrena.**- Aurreko eskuordetzak ez du organo eskuordetza-emaile naizen honen eskumena aldatzen, eta neurea da likidazioak onartzeko eskumena.

**Hirugarrena.**- Eskuordetze honen ondorioz izenpetzen dituen ebazpen eta egintza guztietan, jatorrizko agintaritzak jasoaraziko da.”

#### b) Izendapenak

##### b.1) Alkateordeak

Alkatetzaren 0770 Dekretua, 2019ko ekainaren 20koa:

“Ondoko aginduek eskurantzak batzuk ematen dizkiote Alkatezari:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (bai apirilaren 21eko 11/1999 Legeak bai tokiko gobernua eraberritzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatutakoa), 21.3 eta 23.4 artikuluetan.
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 43.1 eta 43.3 artikuluetan.

Eskurantzak horiek erabilia, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

**Lehena.**- Honako izendapen hauek egitea, indarrean dagoen tokiko araudiak ematen dizkien

eskurantza eta eskumen guztiekin:

- 1. alkateordea: JESUS ARANA GOMEZ JN., Udal honetan ordezkari den EAJ-PNV talde politikoko zinegotzi dena, eta
- 2. alkateordea: GLORIA VAZQUEZ HERRANZ AND., Udal honetan ordezkari den SOCIALISTAS VASCOS – EUSKAL SOZIALISTAK talde politikoko zinegotzi dena, eta
- 3. alkateordea: IBAN SAN MARTIN HERNANDEZ JN., Udal honetan ordezkari den EAJ-PNV talde politikoko zinegotzi dena.

**Bigarrena.**- Ebazpen hau jakinaraztea; Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau Alkatezaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina."

## **b.2) Gobernu Batzarreko kideak**

Alkatezaren 0771 Dekretua, 2019ko ekainaren 20koa:

"Ondoko aginduek eskurantza batzuk ematen dizkiote Alkatezari:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (bai apirilaren 21eko 11/1999 Legeak bai tokiko gobernuaren eraberritzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatutakoa), 21.3 artikuluan.
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 41.3 eta 52.2 artikuluetan.

Eskurantza horiek erabilia, honako hau

### **ERABAKITZEN DUT**

**Lehen.**- Ondoren adierazten direnak Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea, indarrean dagoen araudiak ematen dizkien eskurantza eta prerrogatiba guztiekin:

- |                             |           |
|-----------------------------|-----------|
| - Jesus Arana Gomez         | (EAJ/PNV) |
| - Iban San Martin Hernandez | (EAJ/PNV) |
| - Iker Basurko De Miguel    | (EAJ/PNV) |
| - Irune Urbieta Alberdi     | (EAJ/PNV) |
| - Gloria Vazquez Herranz    | (PSE-EE)  |

**Bigarrena.**- Ebazpen hau adierazitako zinegotziei jakinaraztea; Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau Alkatezaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina."

## **c) Gobernu Batzarra biltzeko maiztasuna, eguna eta ordua**

Alkatezaren 0772 Dekretua, 2019ko ekainaren 20koa:

"Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 112.3 artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabilia, honakoa

#### ERABAKITZEN DUT

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak ohiko bilkurak astean behin egitea: astelehenetan, 13:00etan.

Finkatutako egunen bat jaiegun izanez gero, haren aurreko edo hurrengo egun baliodunean egingo da, ordu berean."

#### **d) Eskumenen eskuordetzea**

##### **d.1) Gobernu batzarrari**

Alkatetzaren 0773 Dekretua, 2019ko ekainaren 20koa:

"Ondoko aginduek eskurantza batzuk ematen dizkiote Alkatetzari:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (bai apirilaren 21eko 11/1999 Legeak bai tokiko gobernua eraberritzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatutakoa), 21.3 eta 23.4 artikuluetan.
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 43.1 eta 43.2 artikuluetan.
- Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 9. artikuluan eta hurrengoetan.

Eskurantza horiek erabilia, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

**Lehena.-** Tokiko Gobernu Batzarrari honako eskumen hauek eskuordetzea (aipatutako Legean alkateari esleitzen zaizkio):

##### 1.- HIRIGINTZA

- a) Eraikuntza berriak egiteko eta lehendik dauden eraikuntzetan berrikuntza handiak egiteko lizentziak ematea, eta horiek gauzatzeko proiektuak onartzea (21.1.q artikulua), zergen ondorioetarako aurrekontu likidagarria 200.000,00 eurokoa edo gehiagokoa denean.
- b) Eraikuntzetako lehen erabilerako lizentziak ematea (21.1.q artikulua), baldin eta obra-lizentzia Tokiko Gobernu Batzarrak eman badu.
- c) Aurri-espeditenteak erabakitzea (21.1.s artikulua).
- d) Hirigintza-kudeaketarako tresnak (birpartzelazio-proiektuak, urbanizatzeko jarduketa programak eta gainerako hitzarmenak) eta urbanizazio-proiektuak onartzea (21.1.j artikulua).
- e) Hirigintza-ordenamenduko planei eta hitzarmenei hasierako eta behin-behineko onespena ematea, baldin eta behin betiko onespeneren eskumena Udalbatzarrarena bada (21.1.j artikulua).
- f) Hirigintzako arau-hauste larri eta oso larrien ondoriozko zigorrak (Hirigintza-diziplinaren

Arautegiko 51. artikulua eta ondorengoak).

- g) Ingurumena: Zarata mapak eta ekintza planak onartzea (213/2012 Dekretuaren 18. eta 19. Artikuluak); Klima-aldaketaren aurkako ekintza-planak onartzea, Udaltzaren eskumena ez denean.

## 2.- GIZA BALIABIDEAK

- a) Lan eskaintza publikoa onartzea, Udaltzarrak onartutako aurrekontuaren eta plantillaren arabera (21.1.g artikulua).
- b) Langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako oinarriak onartzea (21.1.g artikulua).
- c) Diziplina-espedienteak erabakitzea (21.1.h artikulua).

## 3.- KONTRATAZIOA

- a) Edonolako kontratazioak eta emakidak egitea, baldin eta baliabide arrunten % 5etik % 10era bitartekoak badira (21.1.n artikulua)
- b) Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea, baldin eta horiek kontratatzeke edo esleitzeko eskumena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude (21.1.o artikulua).

## 4. DIRU-LAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK

Eskaeren arteko lehia bidez laguntzak eta diru-laguntzak emateko deialdia onartzea, bai eta horiek erabakitzea ere.

Honako hauek eskuordetzearen esparrutik kanpo daude eta, beraz, Alkatezaren esku geratzen dira: alde batetik, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, 22.2 artikuluan aurreikusten duen zuzeneko laguntza eta diru-laguntza oro, eta horien ondorengo formalizazio-hitzarmenak sinatzea; eta, bestetik, gizarte-larrialdiko planen, banan banako laguntza planen eta abarren arabera baimentzen diren gizarte arloko laguntzak.

## 5.- GASTUAK

Bere eskumeneko arloan obligazioak aitortzea, baliabide arrunten % 5etik % 10era bitartean (21.1.f artikulua).

## 6.- ONDASUNAK

Ondasunak eta eskubideak erostea, eta ondarea besterentzea, horien balioa baliabide arrunten % 5etik % 10era bitartean dagoenean (21.1.p artikulua).

Bere eskumeneko arloan udal jabetzako ondasunak doan erabiltzen lagatzeko erabakiak hartzea (21.1.s artikulua), baldin eta iraupena urtebetekoa edo gehiagokoa bada.

## 7.- LANKIDETZA-HITZARMENAK

Beste administrazio batzuekin eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin lankidetzaren hitzarmenak onartzea, lege hauen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnean: a) azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena; b) azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa, eta hori garatzeko arauak (21.1.s artikulua).

**Bigarrena.-** Zirkunstantzia hori berariaz adieraziko da eskuordetzaren xede diren gaiei buruz Tokiko Gobernu Batzarrak hartzen dituen erabakietan, eta eskuordetu gabeko gaiei buruz organo eskuordetza-emaile honek hartzen dituen ebazpenen balio bera izango dute erabaki horiek

**Hirugarrena.**- Eskuordetzak oraingo Udalbatzaren agintaldian izango du eragina. Dena den, epealdi hori amaitu aurretik eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, eskuordetza aldatu edo baliogabetu ahal izango da.

**Laugarrena.**- Dekretu hau Tokiko Gobernu Batzarrari helaraztea. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

**Bosgarrena.**- Dekretu hau Alkatetzaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina."

## d.2) Ekonomia

Alkatetzaren 0774 Dekretua, 2019ko ekainaren 20koa:

"Ondoko aginduek eskurantzak batzuk ematen dizkiote Alkatetzari:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (bai apirilaren 21eko 11/1999 Legeak bai tokiko gobernua eraberritzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatutakoa), 21.3 eta 23.4 artikuluetan.
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 43.1 eta 43.3 artikuluetan.
- Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 9. artikuluan eta hurrengoetan.

Eskurantzak horiek erabilia, honako hau

### ERABAKITZEN DUT

**Lehena.**- JESUS ARANA GOMEZ 1. alkateordeari eskuordetza 9/2017 Legeak (azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak; horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora) 118. artikuluan Alkatetzari emandako honako eskumen hauek, zerbitzu eta hornidura kontratu txikiei dagokienez; aldiz, obra-kontratu txikiak beretzat gordetzen ditu Alkatetzak:

- Kontratazio-organoak txostena egingo du, kontratuaren beharra arrazoitzeko.
- Frogatuko da kontratazio arau orokorrak ez aplikatzeagatik kontratuaren helburua ez dela aldatzen ari.
- Frogatuko da kontratistak ez dituela sinatu kontratu txiki gehiago, zeinak, bakarka edo multzoan, 15.000 euroko kopurua gainditzen duten hornidura edo zerbitzu kontratuak.
- Gastua onartzeko ebazpenak.

**Bigarrena.**- Goian adierazitakoari eskuordetza, halaber, honako eskumen hau: KREDITU-GEHIKUNTZA MOTAKO KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEAK ONARTZEA; eta hori, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoak, eta 2019ko AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAK berak xedatutakoaren arabera.

Espedienteko txostena sinatuta gauzatuko da eskuordetza.

**Hirugarrena.**- Alkateorde horri berari eskuordetza TELEFONIA MUGIKORREKO GAETAN eragiketarako eskumena (terminalen kontratuak, telefono-lineen garraigarritasuna...).

**Laugarrena.**- Zirkunstantzia hori berariaz adieraziko da eskuordetzaren xede diren gaiei buruz zinegotzi ordezkariak ematen dituen administrazio-egintzetan, eta eskuordetu gabeko gaiei buruz organo eskuordetza-emaila honek hartzen dituen ebazpenen balio bera izango dute erabaki horiek.

**Bosgarrena.**- Eskuordetza horrek eragina izango du ordezkariak zinegotzi izaera duen denboran. Dena den, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, eskuordetza aldatu edo baliogabetu ahal izango da.

**Seigarrena.**- Dekretu hau izendatutako ordezkariari jakinaraztea, eskuordetza onar dezan. Udaltzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

**Zazpigarrena.**- Dekretu hau Alkatezaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.”

### **d.3) Udaltzaingoa**

Alkatezaren 0775 Dekretua, 2019ko ekainaren 20koa:

“Ondoko aginduek eskurantzak batzuk ematen dizkiote Alkatezari:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (bai apirilaren 21eko 11/1999 Legeak bai tokiko gobernua eraberritzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatutakoa), 21.3 eta 23.4 artikuluetan.
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 43.3 eta 43.4 artikuluetan.
- Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 9. artikuluan eta hurrengoetan.

Eskurantzak horiek erabilia, honako hau

#### **ERABAKITZEN DUT**

**Lehena.**- 3. alkateorde IBAN SAN MARTIN jaunari eskumen hauek eskuordetza:

- UDALTZAINGOA
- HERRITARREN SEGURITASUNA ETA HERRI BABESA
- TRAFIKOA: bai ZARAUZKO HIRI-BIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAN bai OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZAN aurreikusitako baimenak ematea eta, halaber, zigortzeko espedienteak tramitatu eta erabakitzea.

Hona hemen, hain zuzen ere, eskumen horiek jasotzen dituzten aginduak: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena (apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatua) –21.1.i) eta 21.1.s) artikuluetan–, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena –41.15 eta 41.27 artikuluetan–.

**Bigarrena.**- Zinegotzi horri eskuordetzan emandako eskumenetan, oro har, hau sartzen da: dagokion arloa zuzendu eta kudeatzeko ahalmena, bai eta eskuordetza betetzeko beharrezkoak diren izapideak edo behin betiko dokumentuak sinatzekoa ere, ebazpen-proposamenak eta dekretuak barne.

**Hirugarrena.**- Zirkunstantzia hori berariaz adieraziko da eskuordetzaren xede diren gaiei buruz

zinegotzi ordezkariak ematen dituen administrazio-egintzetan, eta eskuordetu gabeko gaiei buruz organo eskuordetza-emaila honek hartzen dituen ebazpenen balio bera izango dute erabaki horiek.

**Laugarrena.**- Eskuordetza horrek eragina izango du ordezkariak zinegotzi izaera duen denboran. Dena den, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, eskuordetza aldatu edo baliogabetu ahal izango da.

**Bosgarrena.**- Dekretu hau izendatutako ordezkariari jakinaraztea, eskuordetza onar dezan. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

**Seigarrena.**- Dekretu hau Alkatezaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.”

#### **d.4) Udal Musika Eskola**

Alkatezaren 0776 Dekretua, 2019ko ekainaren 20koa:

“2014ko urriaren 29an egindako bilkuran, “IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAREN barne arautegia onartu zuen aho batez Udalbatzarrak. Arautegiaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2015eko urtarrilaren 5ean (2 zk.).

Arautegi horren arabera, Zarauzko alkateari dagokio –edo hark bere ordezkari izendatutako zinegotziari– “IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAKO Zuzendaritza Batzordeko eta Eskola Kontseiluko lehendakaritza.

Ondoko aginduek eskurantzak batzuk ematen dizkiote Alkatezari:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (bai apirilaren 21eko 11/1999 Legeak bai tokiko gobernua eraberritzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatutakoa), 21.3 eta 23.4 artikuluetan.
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 43.3 eta 43.4 artikuluetan.
- Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 9. artikuluan eta hurrengoetan.
- “IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAREN barne arautegiak (Udalbatzarrak 2014ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran onartua).

Eskurantzak horiek erabilia, honako hau

#### **ERABAKITZEN DUT**

**Lehena.**- Kulturako zinegotzi arduradun IRUNE URBIETA ALBERDI andreari eskuordetzea “IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAKO Zuzendaritza Batzordeko eta Eskola Kontseiluko lehendakaritza.

**Bigarrena.**- Eskuordetza horrek eragina izango du ordezkariak zinegotzi izaera duen denboran. Dena den, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, eskuordetza aldatu edo baliogabetu ahal izango da.

**Hirugarrena.**- Dekretu hau izendatutako ordezkariari jakinaraztea, eskuordetza onar dezan. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren web-orrian argitaratzea.”



### e) Kudeatzeko ardurak

Alkatetzaren 0777 Dekretua, 2019ko ekainaren 20koa:

"Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 11. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabilia,

#### ERABAKITZEN DUT

**Lehena.**- Ondoren adierazitako zinegotziei Udaleko arlo hauek kudeatzeko ardura ematea, eskumenaren titulartasuna laga gabe:

1.	Giza baliabideak:	Jesus Arana Gomez
2.	Ogasuna eta Finantzak ( <i>eskuordetzaren osagarri</i> ):	Jesus Arana Gomez
3.	Barne kudeaketa (Kontratazioa, Ondarea ...):	Iker Basurko De Miguel
4.	Garapen jasangarria, 2030 helburuak:	Iker Basurko De Miguel
5.	Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ):	Iker Basurko De Miguel
6.	Mugikortasuna:	Iker Basurko De Miguel
7.	Azpiegiturak, obra txikiak eta zerbitzuak:	Iban San Martin Hernandez
8.	IKT, e-administrazioa:	Jesus Arana Gomez
9.	Gobernantza Irekia, partaidetza eta elkarbizitza	Jesus Arana Gomez
10.	Euskara:	Irene Urbietta Alberdi
11.	Kultura:	Irene Urbietta Alberdi
12.	Hezkuntza:	Irene Urbietta Alberdi
13.	Turismoa:	Ixidor Larrañaga Ayerbe
14.	Jaiak:	Ixidor Larrañaga Ayerbe
15.	Toki garapen ekonomikoa (merkataritza, ostalaritza...):	Iker Basurko De Miguel
16.	Gizarte Politikak:	Jesus Arana Gomez
17.	Parekidetasuna:	Gloria Vazquez Herranz
18.	Lankidetzak:	Patxi Elola Azpeitia
19.	Agenda 21:	Gloria Vazquez Herranz
20.	Ingurumena:	Gloria Vazquez Herranz
21.	Ingurumen heziketa, baratzeak...:	Patxi Elola Azpeitia
22.	Kirolak:	Leire Arana Olabarrieta
23.	Boluntarioria eta gizarte ekimena:	Leire Arana Olabarrieta
24.	Immigrazioa:	Iratxe Zorrozuza Eguiazabal
25.	Gazteria:	Jon Andoni Urdangarin Urrutia

**Bigarrena.**- Ardura horiek eragina izango dute ordezkariak zinegotzi izaera duten denboran. Dena den, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, kudeatzeko ardurak aldatu edo baliogabetu ahal izango dira.

**Hirugarrena.**- Dekretu hau izendatuak izan diren ordezkariak jakinaraztea, ardura onar dezaten. Udaltzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

**Laugarrena.**- Dekretu hau Alkatetzaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina."

## 2.- OSOKO BILKURAK EGITEKO MAIZTASUNA

2019III0006 espedientea

Alkatetzak aurkeztutako proposamena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

### ERABAKI DU

Udalbatzarraren ohiko osoko bilkurak HILEAN BEHIN egitea, hileko azken ostegunean, arratsaldeko 19:00etan.

Alkateak egun hori aurreratu edo atzeratu egin ahal izango du baldin eta jaiegunekin edo ustekabeko gertaeren batekin batera suertatzen bada. Kasu horretan, alde zuzenetik udal talde politikoen bozeramaleei jakinaraziko die.

## 3.- INFORMAZIO BATZORDEAK ERATU, OSATU ETA HORIEN MAIZTASUNA FINKATZEA

2019III0006 espedientea

Segidan, gai honi buruz aurkeztutako akordio-proposamena irakurri du jarduneko idazkariak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	8	(8 EH Bildu)
Abstentzioak:	—	

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“Aztergai honi buruz Alkatetzak prestatu duen akordio-proposamena ikusi eta gero, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

### ERABAKI DU

Udal informazio-batzordeak eratzea. Honela osatuko dira:

#### Lurraldeko informazio-batzordea

Gaiak:	Hirigintza; Ingurumena; Herrilanak, proiektuak, azpiegiturak, obra txikiak eta zerbitzuak; Hirigintza-diziplina.
Batzordekideak:	3 EAJ-PNV 2 EH Bildu 1 PSE-EE 1 Podemos-Equo Berdeak

Maiztasuna:	Hilean behin, Udalbatzarrak ohiko osoko bilkura egin baino bi aste lehenagoko ostegunean.
-------------	---

#### **Antolakuntzako informazio-batzordea**

Gaiak:	Kontratazioa eta ondarea; Barne kudeaketa; Giza baliabideak; Ogasuna eta finantzak; Herritarren Arreta Zerbitzua; IKT; Artxiboa.
Batzordekideak:	3 EAJ-PNV 2 EH Bildu 1 PSE-EE 1 Podemos-Equo Berdeak
Maiztasuna:	Hilean behin, Udalbatzarrak ohiko osoko bilkura egin baino bi aste lehenagoko ostegunean.

#### **Herritarren arloko informazio-batzordea**

Gaiak:	Gizarte zerbitzuak; Parekidetasuna, Osasuna, Haurrak, Hirugarren adinekoak, Lankidetzak, Immigrazioa; Industria eta Nekazaritza; Udaltzaingoa; Babes zibila; Mugikortasuna; Herritarren partaidetza; Agenda 21; Kultura, Euskara, Hezkuntza; Turismoa; Merkataritza eta Ostalaritza; Ekitaldien koordinazioa; Kirolak eta Gazteria; Giza eskubideak eta Bizikidetzak.
Batzordekideak:	3 EAJ-PNV 2 EH Bildu 1 PSE-EE 1 Podemos-Equo Berdeak
Maiztasuna:	Hilean behin, Udalbatzarrak ohiko osoko bilkura egin baino bi aste lehenagoko ostegunean.

#### **4.- KONTUEN BATZORDE BEREZIA ERATU ETA OSATZEA**

2019III0006 espedientea

Kontuen Batzorde Berezia nahitaezkoa da, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 116 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Batzorde horri dagokio Udalbatzak onartu behar dituen aurrekontuko nahiz aurrekontuz kanpoko kontu guztiak aztertzea eta horiei buruzko txostena egitea, toki-erakundearen kontabilitatea arautzen duen legerian ezarritakoarekin arabera.

Hori horrela, Udalbatzarrak, aho batez,

**ERABAKI DU**

Kontuen Batzorde Berezia eratzea. Honela osatuko da:

Batzordekideak:	3 EAJ-PNV 2 EH Bildu 1 PSE-EE 1 Podemos-Equo Berdeak
-----------------	---

## 5.- KIDE ANITZEKO ORGANOETARAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA

2019III0006 espedientea

Udalbatzak hainbat ordezkari izendatu behar ditu bera ordezkatuta dagoen era guztietako batzorde, erakunde eta elkarteetarako, entitate bakoitzaren estatutuek jarritakoaren arabera. Segidan, Alkatetzak gai horri buruz egindako proposamenaren berri eman da.

Hori ikusita, Udalbatzarrak, aho batez,

### ERABAKI DU

Honako zinegotzi hauek izendatzea, Udalbatza ordezkari dezaten kide anitzeko organo hauetan:

#### **Urola-Kosta Elkarteko Zuzendaritza Batzordea**

Ordezkariek	Jesus Arana Gomez Iker Basurko de Miguel Itziar Murua Uria Mikel Goenaga Gubia Gloria Vazquez Herranz
<i>Ordezkoak</i>	Iban San Martin Hernandez Leire Arana Olabarrieta Ainara Landa Argote Xabier Etxaburu Elu Patxi Elola Azpeitia

#### **Beterri**

Ordezkarria	Xabier Txurruka Fernandez
-------------	---------------------------

#### **Haurreskolak Partzuergoa**

Ordezkarria	Irune Urbieta Alberdi
-------------	-----------------------

#### **Eskola Kontseiluak**

Udal Eskola Kontseilua	Irune Urbieta Alberdi
------------------------	-----------------------

Orokietia	Irene Urbieta Alberdi
Lizardi Institutua	Irene Urbieta Alberdi
Helduen Heziketa Iraunkorra	Irene Urbieta Alberdi
Monte Albertia BHI	Irene Urbieta Alberdi

#### **Artezaleak elkartearen Zuzendaritza Batzardea**

Ordezkarria	Irene Urbieta Alberdi
<i>Ordezkoa</i>	Leire Arana Olabarrieta

#### **Elkarkidetzako Kontrol Batzardea**

Ordezkarria	Jesus Arana Gomez
-------------	-------------------

#### **Urkome**

Ordezkarria	Leire Arana Olabarrieta
<i>Ordezkoa</i>	Jesus Arana Gomez

#### **Gurutze Gorriko Batzardea**

Ordezkarria	Leire Arana Olabarrieta
-------------	-------------------------

#### **Zarautz Hileta Zerbitzuak SA**

Ordezkarria	Iban San Martin Hernandez
-------------	---------------------------

#### **Gipuzkoako Ur Kontsorzioa**

Ordezkarria	Iban San Martin Hernandez
-------------	---------------------------

#### **Pagoetako Parke Naturalaren Patronatua**

Ordezkarria	Gloria Vazquez Herranz
-------------	------------------------

#### **Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza**

Ordezkarria	Iker Basurko De Miguel
<i>Ordezkoa</i>	Jesus Arana Gomez

#### **Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)**

Ordezkarriak	Irene Urbieta Alberdi Jon Andoni Urdangarin Urrutia
--------------	--

	Leire Arana Olabarrieta Begoña Olaizola Elordi Jesus Goikoetxea Balentziaga
<i>Ordezkoak</i>	Miren Letamendia Beloso Jesus Arana Gomez Ixidor Larrañaga Ayerbe Itziar Murua Uria Eider Illarramendi Azkue

## 6.- BEHIN-BEHINEKO LANGILEEN KOPURUA, EZAUGARRIAK ETA ORDAINSARIAK FINKATZEA

2018I3990069 espedientea

Akordio-proposamena irakurri ondoren, gaia hizpide hartuta udal taldeek beren iritzia emateari ekin diote. Eta eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	8	(8 EH Bildu)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Behin-behineko langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak finkatzeko proposamena aurkeztu du Alkatetzak.

Hori ikusita, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

**ERABAKI DU**

**Lehena.-** Behin-behineko langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak finkatzea, eta, ondorioz, indarrean dauden PLANTILLA ORGANIKOA eta LANPOSTUEN ZERRENDA aldatzea, bertan ondoko zehaztapenak sartuta:

### 2019ko PLANTILLA ORGANIKOA

#### BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETA KO PLAZAK						
KODEA	IZENA	ZENBAT	TALDEA	AKT	HUTSAK	OHARRAK
1.2.2	Alkatearen idazkaria	1	C1	1	0	
1.2.5	Talde politikoaren idazkaria	1	C1	1	0	% 71,50
1.2.6	Komunikazio eta protokolo arduraduna	1	A1	1	0	

## 2019ko LANPOSTUEN ZERRENDA

### BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.2.7	Alkatearen idazkaria	1	S	L	C1	20	17.198,86		300		3		1	1
1.2.9	Komunikazio eta Protokolo arduraduna	1	S	L	A1	24	15.809,22		535		3		1	1
1.2.8	PSE-EE talde politikoaren idazkaria (% 71,50)	1	S	L	C1	19	16.232,17		200		3		1	1

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen denetik 15 egun balioduneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izan daitezzen.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeko.

**Hirugarrena.-** Aurrekoa bete ostean, PLANTILLA ORGANIKOAREN eta LANPOSTUEN ZERRENDAREN aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, lege hauekin bat etorritz: apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, toki-araubide arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duena (127. artikulua) eta uztailearen 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa (16. artikulua).

## 7.- ALKATETZAREN DEKRETUA BERRESTEA

### – Alkatetzaren idazkaria izendatzea

2018I3990069 espedientea

Segidan, jarduneko idazkariak dekretu hau irakurri du:

### – Alkatetzaren 0742 Dekretua, 2019ko ekaiaren 17koa:

“Alkatetzak emandako Dekretua irakurri eta aztertu ondoren, bilkuran dauden zinegotziek baieztatu bota eman diote. Beraz, aho batez, Udalbatzarrak 0742 Dekretua berretsi du. Hona hemen testua:

“Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 104. artikuluan dioenaren arabera, Udalbatzarrak behin-behineko edo konfiantzako langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak erabakiko ditu, agintaldiaren hasieran. Halaber, alkateari dagokio lanpostu horiek hornitzea, izendapen askearen bidez.

Hori horrela, honakoa

## ERABAKITZEN DUT

**Lehena.**- IRUNE LARRARTE URANGA andrea izendatzea, behin-behineko langileentzat gordeta dagoen ALKATETZAREN IDAZKARI lanpostua betetzeko. Lanpostuari Zarauzko Udaleko Udaltzarrak 2019ko otsailaren 15ean egindako osoko bilkuran onartutako lanpostuen zerrendako mailari dagokion ordainsaria jarriko zaio.

Izendapen honek ekainaren 17tik izango du eragina, eta behin-behineko langileentzat aurreikusita dagoen araubide berezia beteko du. Ondorioz, Alkatetza honek askatasun osoz kendu ahal izango du kargutik eta, dena dela, alkatea bera kargutik kendutakoan edota haren agintaldia amaitutakoan, automatikoki utziko du lanpostua.

**Bigarrena.**- Izendapen horren proposamena Udaltzarrari aurkeztea, hark berretsi dezan.”

Proposamena bozketan jarrita, haxe izan da emaitza:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	8	(8 EH Bildu)

Horrenbestez, aipatutako gehiengoarekin, Udaltzarrak ERABAKI DU transkribatutako Dekretua berrestea.

## 8.- DEDIKAZIOAK ETA HORIEN ORDAINSARIAK, ETA ZINEGOTZIENTZAKO ETA UDAL TALDEENTZAKO DIRUSARIAK FINKATZEA

2019III0006 espedientea

Akordio-proposamena irakurri ostean, eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	8	(8 EH Bildu)
Abstentzioak:	—	

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udaltzarrak erabaki hau hartu du:

“Alkatetzak gai hauei buruzko proposamena aurkeztu du: a) dedikazio erabatekoen edo partzialen ordainsariak; b) zinegotzientzako eta talde politikoentzako dirusariak; eta c) bilkuretara joateagatik 2019 urtean jasoko diren kalte-ordainak.

Hori ikusita, Udaltzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

**Lehena.**- Honako kargu hauek erabateko dedikazioan jardungo dute:



Xabier Txurruka Fernandez jn.	Alkatea ( <i>hautatua izan zen egunetik</i> )
Jesus Arana Gomez jn.	1. alkateordea
Gloria Vazquez Herranz and.	2. alkateordea
Iban San Martin Hernandez jn.	3. alkateordea
Iker Basurko De Miguel jn.	Gobernu Batzarreko kidea
Irene Urbietta Alberdi and.	Gobernu Batzarreko kidea
Leire Arana Olabarrieta and.	EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia
Itziar Murua Uria and.	EH BILDU udal taldearen bozeramailea

**Bigarrena.**- Honako kargu hauek dedikazio partzalean jardungo dute:

Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.	EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia	(% 50)
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.	EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia	(% 15)
Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn.	EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia	(% 15)
Ion Arozena Eizagirre jn.	EH BILDU udal taldeko zinegotzia	(% 50)
Ainara Landa Argote and.	EH BILDU udal taldeko zinegotzia	(% 50)
Patxi Elola Azpeitia jn.	PSE-EE udal taldeko zinegotzia	(% 15)
Ana de Benito Sanz and.	PODEMOS-EQUO BERDEAK udal taldearen bozeramailea	(% 25)

**Hirugarrena.**- Ordainsari hauek finkatzea, Udalean indarrean dagoen araubidearen arabera:

a) Erabateko dedikazioa

Xabier Txurruka Fernandez jn. ( <i>hautaketa egunetik hasita</i> )		4.921,43 € euro, 14 hilekotan
Jesus Arana Gomez jn. 25	(25 maila)	3.898,75 € euro, 14 hilekotan
Gloria Vazquez Herranz and.	(19 maila)	3.147,06 € euro, 14 hilekotan
Iban San Martin Hernandez jn.	(23 maila)	3.648,15 € euro, 14 hilekotan
Iker Basurko De Miguel jn.	(23 maila)	3.648,15 € euro, 14 hilekotan
Irene Urbietta Alberdi and.	(22 maila)	3.522,94 € euro, 14 hilekotan
Leire Arana Olabarrieta and.	(18 maila)	3.053,04 € euro, 14 hilekotan
Itziar Murua Uria and.	(18 maila)	3.053,04 € euro, 14 hilekotan

b) Dedikazio partziala

Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.	(% 50)	(22 maila)	1.761,47 € euro, 14 hilekotan
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.	(% 15)	(22 maila)	528,44 € euro, 14 hilekotan

Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn.	(% 15)	(22 maila)	528,44 € euro, 14 hilekotan
Ion Arozena Eizagirre jn.	(% 50)	(18 maila)	1.526,52 € euro, 14 hilekotan
Ainara Landa Argote and.	(% 50)	(18 maila)	1.526,52 € euro, 14 hilekotan
Patxi Elola Azpeitia jn.	(% 15)	(22 maila)	528,44 € euro, 14 hilekotan
Ana de Benito Sanz and.	(% 25)	(18 maila)	763,26 € euro, 14 hilekotan

**Laugarrena.**- Dirusari eta kalte-ordain hauek finkatzea:

a) Diru-kopuruak

Udal talde bakoitzeko diru-kopurua	640,- euro/hileko
Udal taldeei zinegotzi bakoitzeko diru-kopurua	160,- euro/hileko

b) Kalte-ordainak bilkuretara joateagatik

Dedikaziorik onartuta ez duten zinegotziak:

Osoko bilkura bakoitzeko	110,- euro
Batzorde bakoitzeko	55,- euro

**Bosgarrena.**- Gastua baimentzea eta gauzatzea, indarrean dagoen aurrekontu orokorraren kontura; hori aplikatzeko, beharrezkoa den kreditu-aldaketa tramitatuko da.

**Seigarrena.**- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari eskatzea honako zinegotziei hauei ALTA emateko:

- Xabier Txurruka Fernandez jn.
- Jesus Arana Gomez jn.
- Iban San Martin Hernandez jn.
- Iker Basurko De Miguel jn.
- Irune Urbietta Alberdi and.
- Leire Arana Olabarrieta and.
- Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.
- Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.
- Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn.
- Itziar Murua Uria and.
- Ion Arozena Eizagirre jn.
- Ainara Landa Argote and.
- Gloria Vazquez Herranz and.
- Patxi Elola Azpeitia jn.
- Ana de Benito Sanz and.

Udalak, bestalde, bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorraren arauak enpresei ezartzen dizkieten betebeharrak, beren zerbitzura dituzten langileei dagokienez.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, iluntzeko zortziak eta hogeian, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.